

# «Imazi galdera: zer da zehazki abertzaleok diskurtsoa berritzea?»

Caracas; 1972. 1936ko gerra ondoko erbestea ezagutu zuen Irujo familiaren seme. Hiru hilabeterekin etorri zen Euskal Herrira. Manuel Irujo jeltzalearen anaia, aitona izan zuen. Aita, berriz, EAJko NBBko buru eta EAko lehen presidentea izan zen Nafarroan. Politikarako sena etxetik dator kio beraz. Zuzenbidean lizentziatua da eta Europako enpresen kudeaketan aditua. Nafarroako EAko Batzorde Eragilearen Antolakuntza idazkaria da. Ekainaz geroztik Europako Parlamentuko diputatua da, ERCko Bernat Joan i Mari eurodiputatuaren tokia hartu ondoren.

**MIKEL ASURMENDI**

Argazkiak: Josu Santesteban

Europako Parlamentuko Hezkuntza, Kultura eta Garapen komisioetan dihardu Mikel Irujok. Munduan gandi dabil usu. Aireportuetako segurtasun neurriak hurbiletik ezagutzen ditu. Europako aireportuetan likidoen kontrolak malgutzeko ebazpen bat bideratu du berriki Parlamentuan: "Aireportuetako segurtasuna itxura besterik ez da, bidaiariok denbora pila galtzen dugu segurtasunaren aitzakian. Nik, adibidez, Miarritze-Lyon/Lyon-Stras-

burgo egin ohi dut eta Miarritzeko eta Strasburgoko kontrolez gain Lyonekoa ere pasa behar dut".

Parlamentuko komisioek burutzen dituzten lanekin pozik dago EAko eurodiputatua. Erabakiak Europar Batasunaren estatu kideetako beste erakundeekin batera hartzen dira, eta batez beste, egokiak direla esan digu: "Europako Kontseilua eta komisioak burutzen ari diren lana balio handikoa da".

**Abuztuan Sierra Leonan izan zinen hauteskundeetako behatzaile lanetan. Zer-nolako esperientzia bizi izan zenuen?**

Ona. Horrelako misioen garrantziaz ohartu naiz. Europako Batasunaren garapen politika ona da, hobetu daiteke noski. AEBetako politika zapaltzailearen aldean hobea da, ordea. Sierra Leonan eskolatik eskolara ibili gara, hauteslekuak behatu ditugu. Bertako arduradun politikoez esperantzaz



Mikel Irujo

hartu gaituzte. 80 pertsona aritu gara segimendu lanetan. Hauteskunde egunaren aurretik eta ondoren zazpi diputatu egon ginen. Agintariek zeregina eskertu dute biziki: “Orain ziur gaude hauteskundeen balioaz” adierazi digute. Hauteskundeak ordaindu egin zaizkie, dirurik ez baitute berauek antolatzeke. Zazpi milioi euroren kostua izan du misioak. EBk AEBk baino diru gehiago jarri du eta ondo erabilia. Komisionan gustura ari gara, harro eta europar sentitzeko moduan.

### Euskal Herrira etorri, nola baloratu duzu Imazek politika uzteko erabakia?

Josu Jon Imazek politika uzteko iragarpena EAJn dauden tentsioen ondorioa da. EA, adibidez, antzeko tentsioen ondorioz sortu zen. Espainiarekiko harremanetan eta politika gauzatzeko moduan ikuspegi diferenteak genituelako. Berriz ere, auzi horrek berak eraman du Imaz erabaki hori hartzera. Imazek bere agurreko artikuluan esan duenez, aurrera egingo badugu, abertzaleok gure diskurtsoa berritu behar dugu. Nik ez dut jokabide hori sekula ulertu eta Imazi nahiz EAJri nire galde-

“PSNk diputatu bat galduko du, ziur, eta biak ere galtzea merezi du. Hutsean geratzea litzateke egokiena, zer Nafarroa nahi duten adierazi dezan behingoz”

ra da: zer da zehazki abertzaleok diskurtsoa berritzea?

### Nola ikusten du EAko eurodiputatu batek EAJko krisia?

Europako mugak ez dira lehengokoak, ados. Adibidez, orain gutxi, nekazaritza merkatuaren erreforma dela-eta, Europako parlamentuko hiru kide gonbidatu ditugu Euskal Herrira bertako mahastizain eta ardogileekin egotera. Bruselatik etorri dira, bertako komisioren bidez garatu baita ekimena. Eta konturatzen zara komisiok ez zeukala ideiarik Arabako Errioxan edota Nafarroan mahastiak daudela. Ez zekiten estatu mailan bigarren ekoizleak direla, ez zekiten zenbat ardogle diren eta zenbat ekoizten den.

Beste adibide bat: Nafarroako funtzionarioen soldatari-ekin arazoak izan genituen. Auzia Madrilerara joan zen lehenik, Bruselara gero. Hori ez da gure burujabatasuna lortzeko bidea...

(...)

Alegia, diskurtsoa berritu behar dela dio Imazek. Zer dela-eta? Nola? Sabino Aranaren eskakizunak bizirik daude gaur egun. Eskaerak moldatu behar direla? Noski. Aranaren garaian estatu bat sortzea zen abertzaletasunaren asmoa: geure moneta eta gudarostea sortzea, besteak beste. Hori aldatu da, bistan da. Baina abertzaleok egun eskatzen

“Merkatu liberalaren ideia gero eta indartsuagoa da Europan, liberalismoa nagusitu da. Hitz hori dogma bihurtu da, moda dela pentsatu nahi dut, pasako dela”.

duguna eta Sabinoren garaian eskatzen zutena, funtsean, bera da. Nik ez ditut muga berriak eraiki nahi, baina gure arazoez ari garenean ordezkaritza zuzena nahi ditut.

ERCko Bernat Joan i Mariren tokia hartu zenuen ekainean Europako Parlamentuan. Nola joan da bere jarduerak? Bernat Joan i Marí linguista da, filologoa. Multilinguismoa gaia landu du bereziki azken bi urteotan. Txosten ona aurkeztu zuen, baina bere gogoaren aurka testua aldatu zioten. Pentsa, Europako Parlamentuan hamabi diputatu katalan daude eta denak katalan hiztunak dira. Katalan hizkuntza gutxitua izan arren zazpigarren hizkuntza da Europan. Hala ere, ez dute lortu katalana osoko bilkuren aktan jasotzea, ezta Josep Borrell –katalan hiztun– presidente zenean ere. Geure hizkuntzan hitz egitea badaukagu, baina ez da aintzakotzat hartzen.

### Eusko Alkartasunak ezetza eman zion Europako Konstituzioari. Eskubide sozialen berme eskasa izan zen ezetza emateko arrazoietako bat. Nola ikusten duzu merkatu ekonomikoa?

Merkatu liberalaren ideia gero eta indartsuagoa da Europan, liberalismoa nagusitu da. Hitz hori dogma bihurtu da, moda dela pentsatu nahi dut, pasako dela. Alderdi sozialistak ere moda bezala darabil. Nekazaritza babestu beharrean, nekazaritza liberalizatzeko joera handia du, kompetentzia librearen aldekoa da europar alderdi sozialista bera ere. Nekazaritzaren merkatua berezia da eta inoiz baino gehiago babestu beharra ikusten dut. Ez da adibide bakarra gainera. Hezkuntza eta osasun eremuak liberalizatzeko joera indartzen ari da, Nafarroan oso agerikoa da hori.

### Nafarroara etorri, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntz Politikarako sailburuorde Patxi Baztarrikak euskara sustatzeko organo komun iraunkorra sortzea proposatu dio Sanzen Gobernuari. Zer iritzi duzu CDNko Carlos Perez-Nievas Hezkuntza kontseilariaren erantzun gogorraz?

Iritzi bi daukat: batetik, Perez-Nievas-ek arrazoiak du proposamena egiteko unea ez dela politikoki egokia esatean, ez dela modua. Patxi Baztarrikaren jokabidea okerra iruditu zait. Gaia, antza, hedabideetara eraman nahi izan



du bazterrak une batez astintzeko. Nik, noski, bi gobernuen elkarlana sustatzea nahi dut, baina gaia prentsatik pasa gabe, hobe da diskretuki hastea. Bestetik, Perez-Nievasi esan behar zaio ez garelara hain inozoak. Urte asko darabate Gobernuan eta elkarlanari uko egin ez ezik, beste eragileengandik guztiz urrundu dira. Eta ez bakarrik Eusko Jaurlaritzarengandik, EAeko nahiz Nafarroako euskalgintzako erakunde guztiengandik, baita sindikatuengandik ere. Izan ere, LAB eta ELA berriz ere Nafarroako mahai sindikaletik baztertuak izan dira.

#### UPNk bere lerro politikoa aldatuko duen esperantza gutxi duzu, beraz.

Gustatuko litzaidake aldatzea.

UPN oso profesionala da eta legealdia hastean badaki hitz politik erabiltzen. Hedabideetan –itxurazko– hitz berriak agertzeko joera du UPNk, baina gero adio! Nafar guztion presidentea izango dela dio Sanzek, nahi nuke hola izatea. Ez dut deus espero ordea. Diskurtsoa beharbada aldatzera behartuta daude NaBaik izan duen arrakasta dela-eta. Euskararen kasuan diskurtsoa aldatu beharko dute, baina funtsezkoan ez dut deus berririk ikusten. Eusko Jaurlaritzako edozein sailek Nafarroako Gobernuarekin harremanak landu nahi izatea logikoa da, baina komunikazioa hutsaren hurrengo da. Aldiz, Errioxa edo Aragoi erkidegoen administrazioarekin harreman normala dute.

#### UPNk tinko jarraituko du beraz.

Bai, baina UPN abertzaletasunetik urrundu nahian espainiar sutsua bihurtu da. Honezkero foruak zer diren ez

#### NIZAKO ITUNA

### “Ituna berritzeak luze joko du”

“2000 urtean itunaren erreforma sakona egin zen. Nizako Itunarekin Europarako itun sendo bat gauzatzeko benetako aukera galdu zen ordea. Hasieran Europako Batasuna (EB) hamabi estatuk osatuta zegoen, gero hamabostek... Egun, berriz, hogeita zazpi gara. Egitura erraldoi honek izugarri moteldu du eguneroko zeregina eta asko zaildu Batasunaren kudeaketa. Bestalde, Ekialdeko Europako estatuak bestelako dinamika batean daude, iraganeko beste marko politikoetan aritu direlako. Batzuk, estatu berriak izaki, Bruselara doaz eta ez dute ondo ulertzen EBko kudeaketa. Ituna berritzeak luze joko du, gero eta zailagoa da, ituna berritzea estatu guztien baimena eta adostasuna behar delako. Estatu nagusiak tinko eta eroso daude bere egoeran”.

dio gizarteari helarazten. UPNk “edo gu edo ez dago Nafarroarik ez nafartasunik” helarazten dio gizarteari. Dena da Espainia. Beren burua foralistatzat dute, baina ez da egia, nafar foraltasuna galbidean ezarri dute. Gainerakoak deabruak gara, lapurrak. Gobernu batek hori egitea... UPNk gizartearen zatiketa bilatzen du, gizartean ez da gertatzen haiek irudikatzen dutena, euren fikzioa asmatu eta bizi dute.

#### Nola bizi duzu Gobernu aldaketa ez gertatzea Nafarroan?

Nafarroak beste behin ere aukera historikoa galdu du. Ez Nafarroak nahi zuelako, baizik eta PSOEk dena gaizki egin duelako. Nafarroa moneta trukea bihurtu dute Madril-en, nafarrok bereziki normaltasuna behar dugularik. Na-Bai, berriz, normaltasuna behar dugulako, hila-bete luzez aritu da lanean, PSNrekin

mahaian eserita, aukera posible guztiak aztertuz.

#### PSN nola ikusten duzu etorkizunari begira? Sektore kritikoa dela...

Pentsa ezazu zenbat argudio genuen lehenago ez esertzeko mahaian, hala ere, eseri ginen akordioa lortzeko. Gogoan dautkat Javier Otanorekin gertatu zena, PSN, CDN eta EAren arteko gobernu akordioa gauzatu zenean. Oraingoan PSNk meritu guztiak egin ditu berarekin ez esertzeko berriz ere. Datorren martxoko Espainiako Kongresurako hauteskundeetan ordezkari ez izatea merezi dute. Diputatu bat galduko dute, ziur, eta biak ere galtzea merezi dute. Ez dut mendeku gisa esaten,

benetan, baina hutsean geratzea litzateke egokiena, zer Nafarroa nahi duten adierazi dezaten behingoz. Sektore kritikoa dela ez dela... Hasteko, senataria UPNrekin hitzartu dute, duintasun apurra erakutsi duen bakarria Fernando Puras da, bere taldeko beste laurekin batera. Talde parlamentario sozialista, horren kritikoa zena, hor dago hamaika eserlekuak betez.

#### NaBaik datozen hauteskundeetan berretsiko ote du lortutako emaitza?

Hori da gure erronka. Noski koalizio guztietan bezala, NaBain ere antolaketan lan handia egin behar da, bakoitzak bere dinamika dauka. Baina gizarteak zabaldu digun bideari eutsi behar diogu, eutsiko diogu.

#### Bigarren diputatua lortuko al du agian?

Hori da helburu. ■



Mikeletegi pasealekua 53 • DONOSTIA  
943308220 • www.arbelaitz.com

Arbelaitz Jatetxea